

Topalekua

47zk. 2008ko ekaina

junio 2008 - n.º 47

pág. 1, 2 y 3: *Gizarte kontseiluaren web orri berria tresna baliagarri bat parte hartzeko UPV/EHU eta gizartearen zerbitzura*

pág. 4: *Gizarte kontseiluak bi egitasmo berriri ekin dio UPV/EHUrentzat*

www.gizartekontseilua.com

GIZARTE KONTSEILUAREN WEB ORRI BERRIA TRESNA BALIAGARRI BAT PARTE HARTZEKO UPV/EHU ETA GIZARTEAREN ZERBITZURA

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak web orri berri bat abian jarri du, www.gizartekontseilua.com, tresna baliagarri, arin eta intuitiboa izan dadin diseinaturia, parte hartzearen aldekoa, unibertsitateko komunitatearen eta hark zerbitzatzen duen gizartearen zerbitzura. Gizarte Kontseiluaren web orri berria Web 2.0 joera berrien arabera diseinaturik dago, eta oso bilaketa-aukera eraginkorrak dauzka, eduki guztietarako sarbide lasterrak eta enpresa, ikasle, familia zein hedabideentzako eduki erabat berriak.

The screenshot shows the homepage of the UPV/EHU Social Council website. The header features the logo of the UPV/EHU and the text "EHU/UPVko Gizarte Kontseilua". Below the header is a navigation menu with links: home, aurkezpena, legezko esparrua, eskumenak, osakera, and harremanetan jartzeko. A search bar is located on the left side. The main content area is titled "Aurkezpena" (Introduction) and contains text in Basque and Spanish. The text describes the website as a tool for the Social Council to communicate with the community and provide services. It mentions that the website is designed to be user-friendly and accessible, and that it provides information about the council's activities and services. The text also mentions that the website is available in Basque and Spanish. The footer of the page contains the text "(2. eta 3. orrietan jarraitzen du)" (Continues on pages 2 and 3).

(2. eta 3. orrietan jarraitzen du)

www.gizartekontseilua.com: GIZARTE KONTSEILUAREN WEB BERRIA

Web orri berria, www.gizartekontseilua.com, Web 2.0 joeren arabera garatua izan da, hau da, haren helburuak norabide-aniztasuna, erabiltzaileen arteko elkarreragina eta iritzi, esperientzia eta edukien trukea dira. Blog formatua hartu du, hark zenbait muga estetiko dituen arren begien bistako abantailak ere baititu: berehalakotasuna, informazio jariora, elkarriketarako gaitasuna, iruzkinak egiteko bidea eta gizarte-sareei egokitzeko gaitasuna. Zalantzarik gabe, formatu horrek Gizarte Kontseiluaren jarduerarekiko zerikusia duten gizartearen eta arlo akademikoaren sektore guztien parte hartzea eta elkarlana errazten ditu, Gizarte Kontseilua baita gizartearen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkatzeko duen erakundea.

Ikuspegi berriarekin, Gizarte Kontseiluaren web orri berria parte hartzearen aldekoa ez ezik honela ere bada:

- **Baliagarriagoa**, edukien argitalpen arina errazteaz gain web orri berean eta sarean informazioarako bilaketa eta sarbide aukerak ere baitauzka,
- **Argiagoa**, albisteak hasierako orrian aurkezten baitira, eta handik beste edozein orritara pasa daiteke tarteko urrats aspergarri eta luzeetatik eman behar izan gabe. Hala, web orriaren ohiko erabiltzaileek ez daukate zertan pasa ezagutzen dituzten orrietatik; erabiltzaile berriek, aldiz, gai berri batek erakarrita sartu ondoren lehendabiziko saioan aurkituko dituzte.
- **Arinagoa**, edukiak bilatzeko sistema erraz eta malgua baitauka, edozein datu aurkitu ahal

izateko labirinto informatikoen itzulinguruak korritu behar izan gabe.

- **Oso erabilgarria**, eduki berri eta interesgarriak eskaintzen baititu Unibertsitateko oraingo eta geroiko ikasleei informazioa eta orientabidea emateko, baita eusko enpresei, hedabideei eta orokorrean gizarteari ere.

Baina alderdi teknikoez eta haien abantailez gain, interesgarriena erantsi zaizkion eduki berriak dira. 2006ko azkenaldian UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak 2007-2010 laurtekorako Estrategia Egitasmo berria onartu zuen; haren apustua Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen irudia sendotzea eta irakaskuntza erakundea gizarteagana hurbiltzea zen lau jardunbide-ardatz nagusi abiapuntutzat harturik. Horrez gain, ardatz horien xedea gizartearen presentzia goi mailako irakaskuntza publikoan areagotzea eta Gizartearen rola bien arteko lotura gisa sendotzea zen.

Egitasmoaren ezartzeak urte baterako edo urte askotarako plan eraginkorrak barne hartu zituen haren esparruaren baitan garatu beharreko ekintzak finkatze aldera. Lehen plan eraginkorra 2007an garatu zen eta lau egitarau handi zeuzkan, besteak beste, unibertsitate publikoa “saltzeko”, haren baliabideei balioa emateko eta enpresei nahiz gizarteari hala “erakusteko”, eskaeraren pean UPV/EHUK zein zerbitzu ematen dizkien eta eman ahal dizkien berrikuntza eta ikerketa arloan Unibertsitateak sorrarazitako ezagutzaren ondorioen transferentzia-prozesuan.

EDUKI BERRIAK GIZARTE KONTSEILUAREN WEB ORRIAN

2007ko azkenaldia eta 2008 bitartean Plan Eraginkorrean sartutako egitasmoak gauzatu egin dira —guztiak urtero berrituak izango badira ere— eta web berriak eduki berriak eskaintzen ditu, hau da, informazio osoa, fidagarria eta baliagarria gizartearentzat, enpresentzat eta oraingo nahiz geroiko ikasle guztientzat zein unibertsitateko jende guztiarentzat. Lan horren emaitzara www.gizartekontseilua.com gunearen bidez sar daiteke, hasierako orritik, hain zuzen, non hurrengo egitasmoak nabarmentzen diren:

- **Ikerketaren Produktu eta Zerbitzuen Katalogoa:** ondo osatutako txosten bat da, UPV/EHUren eskaintzaren bilduma zabal eta gaurkotua daukana; produktu eta zerbitzu motaren, zientzia-arloaren eta ikerketa-taldearen arabera antolatuta dago, adituen zerrenda bat barne. Unibertsitate publikoaren ikerketa-eskaintzara sartzeko tresna osatu bat erakunde eta enpresen esku jartzten du.
- **Unibertsitatearen Jardueren Urtekari Estatistikoa:** Unibertsitatearen jardueren datuak erabilgarriagoa eta erabilerrazagoa den formatu berri batean biltzen ditu. Ikuspegi orokorrenetik abiatuta —“UPV/EHU begirada batean”— titulazio eskaintza osoa biltzen du, ikasleria, giza-baliabideak, ikerketa-jarduera eta enpresentzako zerbitzuak, baliabide materialak, kanporantzko hedadura eta gizartearekiko konpromisoa. Kontsulta errazte aldera “ohiko galderak” atala ere badu, klik batez nahi diren datuak ahalik eta lasterren lortzeko.
- **Gaitasunen gaineko Ikerketa:** gizarte eta lan-munduaren eskaeren ikerketa bat da, Psikologia, Kimika eta Filologia gradu-titulazioak burutu dituzten ikasleek zein gaitasun izan behar dituzten jakite aldera eta titulazio horien edukiak egokitzeko behar diren gomendioak ezagutze aldera. Ikerketa hau oinarri bat da Unibertsitate zuzendaritza organoek titulazio bakoitzak zein gaitasun garatu behar dituen zehatz dezan, eta 6 edo 7 gaitasun nagusi identifikatu ditu lau titulazioetarako.
- **Lanaren gaineko Orientabidea:** txosten honek unibertsitate-lanaren merkatuaren gaineko informazioa ikasleen esku jartzten du, lehendabiziko enplegurako bidean laguntzeko. Txostenak informazio zabala biltzen du: lan merkatua, enplegurako sarbideak, bilatzeko tresnak, zein gaitasun eskatzen diren, nork bere kandidatura nola aurkeztu eta helburu profesionalak. Lotura interesgarri ugari ere baditu lan-merkatuan sartzeko eta gehien eskatzen diren lanbideak nahiz enplegu-iturri berriak zein diren jakiteko.



- **Lan Munduratzeara:** Atal honek Unibertsitateko Tituludunen Lan-Munduratzearen gaineko Inkestak emandako informazio guztia biltzen du. Lan-merkatuaren behatoki egonkor bat da, Gizarte Kontseiluak bultzatua berau. 1998z geroztik talde horren laneratze tasak ezagutzea ahalbidetzen du, baita garatzen diren enpleguen kalitatea eta egokitasuna ere. Unibertsitatean ikasketak burutu dituzten ikasle gehienek parte hartzen dute Inkestan, eta hura egiteko Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, hango Gizarte Kontseiluak eta Egailan herri-erakundeak komenio bat sinatzen dute urtero. Inkestaren emaitzak, gure web guneak osorik erakutsikoak, balio handiko tresna dira gure Autonomia Erkidegoko goi mailako irakaskuntzari eragiten dioten erabakiak hartze aldera, eta etorkizunean ikasketak bukatuko dituztenak orientatzeko lanabes egoki bat.

Aipatutako edukiez gain, web berriak ohiko atalak gorde ditu: Osoko Bilkura bakoitzean jorratutako gaiak, txostenak, ikerketak, argitalpenak, prentsa-oharrak eta formatu elektronikoa duen Topalekua buletina.

GIZARTE KONTSEILUAK BI EGITASMO BERRIRI EKIN DIO UPV/EHUrentzat

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak bi egitasmo kontratatzea erabaki zuen joan den ekainaren 12an egindako bere azken bileran. Biak 2007-2010eko Estrategia Egitasmoan aurreikusita daude, eta haien ardatza alde batetik Administrazioen prestakuntza, ikerketa eta zerbitzu-beharrizanen azterketa bat egitea da, eta bestetik herri erakundeek zein erakunde pribatuek erabil litzaketan UPV/EHUren baliabideen inbentario bat egitea. Egitasmo horiek 120.000 €ko aurrekontua daukate eta Estrategia Egitasmoaren baitan dagoen Gizarte Kontseiluaren 2008rako Egitasmo Eraginkorraren parte dira. Egiteko epealdia, aldiz, lau hilabetekoa da; hortaz, urte honen bukaerarako eskura egon behar dira.

Lan horietako aurrenaren asmoa Herri Administrazioen prestakuntza, ikerketa eta zerbitzu-beharrizanak zehaztea da, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea haiek betetzeko gai zain dadin. Azterketak euren inguruko Administrazioekin elkarlan-planak garatzen dituzten beste unibertsitateekiko konparazio-analisi bat barne hartu behar du, baita unibertsitate-adituen eta kudeatzaileen iritzia ere, euren iruzkinak eta eskarmentua erants ditzaten, eta, azkenik, gure Administrazioen estrategia eta kudeaketa-planen estudio bat.

Bigarren egitasmoaren xedea, aldiz, UPV/EHUn eskura dauden baliabide guztien inbentario osotu bat egitea da —ondasun higiezinak, irakaskuntza-instalazioak, heziketa-guneak edo kiroledegia— beste herri erakundeek nahiz elkarte pribatuek erabili ahal ditzaten eta horrela gizarte-onura bat edota mozkin ekonomikoak Unibertsitateari eman diezazkioten. Azterketak hiru unibertsitate-campusak zein han eskura dauden lokal, lursail, zentro eta instalazio oro aintzat hartu behar ditu eta haien balizko erabilera eta posible diren beste erabilera alternatiboak edo osagarriak analizatu.

Berezko tituluen prezioak

Era berean, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2008/2009ko ikasturterako berezko tituluen prezioak onartzea erabaki zuen (bik prezioa gorde dute eta beste bi sortu berriak dira), baita gradu-ondokoan ere (20k prezioa gorde dute eta 15 sortu berriak dira). Sortu berriko Tituluak, honelaxe geratu dira:

Graduko berezko tituluak:

TITULUA	€/KREDITU
Iraunkortasunean Aditua	60,00
Makina eta Lanabesetan Aditua	0,00

Gradu-ondoko berezko tituluak:

TITULUA	€/KREDITU
Unibertsitate-masterra Etxegintza Iraunkorrean eta Eraginkortasunean	100,00
Unibertsitate-aditua IMAGO URBIS-en: Hiriko Paisaiaren Sorrera, Eraikuntza eta Gobernua	100,00
Unibertsitate-masterra Azpiegiturretan, Zerbitzuetan eta Sareen Segurtasunean	66,26
Unibertsitate-masterra Etxegintzaren Ingeniaritza Ternikoan	83,00
Unibertsitate-aditua Software Librean: Sistema, Sarea, Segurtasuna eta Web Aplikazioak	45,00
Unibertsitate-aditua Esperientzia Traumatikoen Biktimen Laguntzan	40,00
Unibertsitate-aditua Ondarearen Kudeaketan eta Banku Jarduera Pribatuetan	110,00
Unibertsitate-aditua Administrazio Zuzenbidean eta Epaila Jardueran: Autonomia Erkidegoen eta Udalen Administrazio-zuzenbidea, Hirigintza, Ingurumena eta Giza Eskubideak	50,00
Unibertsitate-aditua Garapen Iraunkorrean: Agenda 21 Lokalaren Kudeatzailea	99,33
Unibertsitate-masterra Web 2.0 motako Heziketa Ingurunean eta Ezagutzaren Kudeaketan	55,00
Unibertsitate-aditua Web 2.0 motako Heziketa Ingurunean eta Ezagutzaren Kudeaketan	55,00
Unibertsitate-masterra Kirolaren Kudeaketan	45,00
Unibertsitate-masterra Europako Batasunaren Integrazio Politikoa eta Batasun Ekonomikoa	60,50
Unibertsitate-aditua Lurralde Ordenazio eta Kudeaketan	60,00
Unibertsitate-masterra Gatazken Konponketan eta Bitartekaritzan	45,00

Atal honetan bertan, Osoko Bilkurak UPV/EHUri eskatu zionez, 2009/2010eko ikastaroan eskainiko diren gradu eta gradu-ondoko tituluak Osoko Bilkurari 2009ko maiatzaren 31 baino lehenago aurkeztuko zaizkio onartuak izan daitezkeen, eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua ez ezik aurreneko kurtsoaren kitapena eta haren garapenaren txosten argitzailea ere barne hartu behar dituzte.

Beharrizanen egitasmoa

Osoko Bilkurak Kontseiluak 2008rako egindako Aurrekontu Beharrizanen Aurre-Egitasmoari, zeinak aintzat hartzen dituen urte honetarako Egitasmo Eraginkorrean aurreikusitako zortzi egitasmoak eta 2007-2008an egindakoen gaurkotzea (Urtekari Estatistikoa, Unibertsitate Enpleguaren Eskaintzaren Behatokia eta Ikerketa-Produktuen eta Zerbitzuen Katalogoa; —denak Kontseiluaren web orrian kontsulta daitezke: www.gizartekontseilua.com—).

Azkenik, Kontseiluak Facultad de Filología, Geografía e Historia/ Filologia, Geografia eta Historia Fakultatearen izena aldatua izan dadin Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzea erabaki zuen, eta aurrerantzean Facultad de Letras/Letren Fakultatea izena eduki dezan.